

Ebazpena: R044/2023

Espedientea: 14/2020

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren (aurrerantzean, FBM) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, ESLk planteatutako kontsultari loturik. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 14/2020 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2019ko martxoaren 8an, ESLk zerga-kontsulta bat aurkeztu zion BFari:

ESLren egoitza soziala lurralde erkidean dago, eta ingeniarietako eta informatikako aholkularitzan laguntza teknikoko zerbitzuak ematen dizkie lurralde erkideko, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako enpresei. Horretarako, establezimendu bat du Bizkaian, eta handik gutxienerako zerbitzu-zati bat eskaintzen die lurralde erkideko nahiz Bizkaiko enpresei.

Eragiketa-bolumena 10.000.000 eurorena baino handiagoa da.

Kontsulagileak jakin nahi du zein administrazioren aurrean aurkeztu behar dituen BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren likidazioak, eta non kokatzen diren bere eragiketak tributazio-proporzioa zehazteko.

2.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren barruan (aurrerantzean, EZKO), funtsean, erantzun hau proposatu zuten:

BEZari dagokionez, araudi erkideko zerga itundu bat da, nahiz eta ez duen galarazten foru-lurraldeek beren deklarazio-epeak eta -ereduak ezartzeko duten aukera.

10.000.000 eurotik gorako eragiketa-bolumena duenez, eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu beharko ditu zergak (lotuta ez dauden eragiketak eta salbuetsitako eragiketa mugatuak alde batera utzita), eta eragiketak egiten diren lekuaren arabera zehaztuko da, betiere Ekonomia Itunaren 28. artikuluan jasotakoari jarraikiz (irizpide orokorra da zerbitzuak ematen diren tokia hartzea kontuan).

Urtean zehar, aurreko urteko behin betiko proportzioa aplikatuko da, eta erregularizatu, berriz, urteko azken autolikidazioan.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, foru-araudiko zerga itundu bat da, baina, egoitza fiskala lurralde erkidean duen subjektua denez eta jardueraren gutxieneko zati bat Bizkaiko establezimenduaren bidez egiten duenez, nekez aplikatuko du foru-araudia.

Eragiketa-bolumenak 10.000.000 euro gainditzen dituzenez, eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu beharko ditu zergak, zeina Ekonomia Itunaren 16. artikuluko irizpideen arabera zehaztuko baita. Irizpide horiek

BEZaren irizpideen berberak dira, eta 11/2013 Foru Arauak onetsitako sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauan daude xehatuta.

Ordainketa zatikatua ere Ekonomia Itunaren 14. artikuluko irizpide berberen arabera kalkulatu da, eta proportzioan ordainduko dira haiek ere. Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Arauan jasotako irizpideak ere aipatzen dira.

Kontsultaren erantzunak 2/2005 Foru Arauak onetsitako Bizkaiko Zergen Foru Arau Orokorraren 86. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango zituela aipatzen zen.

3.- 2020ko urtarrilaren 27an, MHFPk oharrak egin zizkion EZKOren kontsultari erantzuteko proposamenari, funtsean, gai hauekin loturik:

a.- Aplikatu beharreko araudi erkidea 27/2014 Legearen bidez onetsitako Sozietateen gaineko zergaren Legea dela adieraztea.

b.- Eragiketak lokalizatzeko eta sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako ordainketa zatikatuak zehazteko irizpideak Sozietateen gaineko zergaren Legean adierazitakoak direla.

c.- Kontsultaren ondorioak Tributuen Lege Orokorrean (58/2003, abenduaren 17koa) ezarritakoak izango direla.

4.- Bi hilabeteko epean adostasunik ez zegoenez, Arbitraje Batzordeari helarazi zitzaion, ebazpena eman zezan.

5.- Prozedura 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (aurrerantzean, EIABE) 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera izapidetu da.

6.- 2023ko otsailaren 23ko idazki bidez, atzera egiteko idazkia aurkeztu zuen zergapekoak, espedientea artxibatzeke eskatuz.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak kontsultak ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 64.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko.

2.- Desadostasunaren balioespena

Ez dago benetako desadostasunik ESLk egindako kontsultari emandako erantzunaren muinari dagokionez.

Arbitraje Batzordearen iritziz, ez da onargarria kasu honetan administrazioen artean planteatutako desadostasunek —erabat baztergarriak izaki— zergapekoari beharrezkoa den segurtasun juridikoa kendu izana zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez.

Izan ere, sozietateen gaineko zergari buruzko foru edo estatu mailako araudiari egindako aipamenaren orde, aplikatu beharreko araudiari buruzko aipamen bat egin zitekeen, ikusirik gainerako erantzuna, agerikoa baitzen Estatukoa zela.

Bestalde, Tributuen Lege Orokorraren edo Zergen Foru Arau Orokorraren zerga-kontsultari buruzko aipamenik ez zuten egin behar administrazioek, ez baitzetozen bat. Izan ere, 27/2022 Ebazpenean jaso da, Ekonomia Itunaren 64. artikulua ZFAOren 85. artikuluan eta hurrengoetan eta TLOren 88. artikuluan eta hurrengoetan araututako zerga-kontsultaren izaera bera du.

3.- Prozeduraren xedea gerora galtzea eta atzera egitea

Zergapekoak atzera egiteak, interes orokorreko arazo bat ez denez, prozedura amaitzea dakar berekin, salbu eta alderdietako batek prozedura 10 eguneko epean jarraitzeko eskatzen badu, prozedura jakinarazten denetik zenbatzen hasita, guztia ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluari jarraikiz (EIABAren 8. artikulua araberak aplikatzekoa).

Nolanahi ere, Arbitraje Batzorde honek uste du, kontsulta egin zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, erantzunak ez lukeela berez dagokion eragina izango —hau da, kontsulta-egileari segurtasun juridikoa ematea—, eta, beraz,

prozeduraren xedea galdu egin dela gerora, 39/2015 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Prozedura beste izapiderik gabe artxibatutzat jotzea, objektua gerora galdu izanagatik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari eta ESLri jakinaraztea.